

## BERTITZ – LEGASAKO KANPALDIA

Maiatzaren 4tik 6ra, Bertitzko kanpaldia burutu genuen. Legasako aterpean pasatu genituen bi gau. Esperientzia gomendagarria benetan.



Ekintza asko egin genituen. Kanoraft baztan ibaian zehar, tirolina eta zuhaitzen gainean ibili.

Lehenengo egunean, arratsaldean, kanoraft egin genuen. Ur lasterrak zeuden, oso dibertigarria, baina batzuk uretara erori egin ziren.

Beste ekintzak ere asko gustatu zitzaizkigun. Tirolinak lau zati zituen: altuena, ederrena, luzeena eta azkarrena.

Zuhaitz parkea ere oso ondo zegoen, laugarren oztopoa batez ere. Elkarrengandik oso urruti zeudenez salto egin behar zen, balantzaka bukatu genuen.

Hango ostatuko arduraduna janari oso ona prestatu zuten.

Errepikatzeko!!!.

